

MUSUKOEN EDUKIONTZIA

Koronabirusak musukoak derrigorrez erabili behar izana ekarri du. Horregatik, garai zail hauetan jendearen bizitza errazteko zerbitzu bat bururatu zaigu: musukoen edukiontzia.

Zertan datza ideia?

Alemanian ontzien itzuleraren sistemaren oinarritu gara; Pfand sistema izeneko.

Alemanian oso gutxi birziklatzen zenez, 2003.

urtean sistema hau jarri zuten martxan, birziklapena sustatzeko. Nola erabiltzen dira?

Demagun supermerkatuan freskagarri botila bat erosten duzula. Kontsumitu eta gero, botila zakarrontzira bota beharrean supermerkatu

ondoan dauden makina berezi batzuetara bota dezakezu, ontzia birziklatzeko. Edukiontzi hauetan botatzearekin batera, makinak tiket bat itzultzen dizu, freskagarriak balio izan duen diru-kantitatearekin. Modu honetan, tiket hori dirua balitz bezala erabili dezakezu, beste freskagarri batzuk erosteko.



Musukoen edukiontzia

Geure zerbitzua, Pfand sistemaren oinarrituta dago: musukoak derrigorrezkoak direnetik, gero eta ohikoagoa da kaletik musuko erabiliak lurtean botata ikustea. Zerbitzu honen bitartez, herritarrei erraztasunak emango dizkiegu musukoak botatzeko gune bat izan dezaten. Musuko erabiliak kaletik zehar aurkituko dituzten edukiontzi berezi batzuetan botatzeko aukera izango dute; eta musuko erabilia botatzearen truke, makinak beste bat, berria, itzuliko lieke.

Edukiontzien helburua

Musukoen edukiontzia hiru helburu nagusi betetzeko sortu da: Lehenengo, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak laguntzea, musukoen kostuak murrizten lagunduz. Bigarrenik, Covid-19ak eragingo duen kutsadura murriztea, musuko erabiliak botatzeko edukiontzi bat eskainiz. Azkenik, herritarren segurtasuna



bermatzea, pertsona bat ere ez dadin musukorik gabe gelditu eta maiztasunez aldatzeko aukera izan dezan; modu honetan bere osasuna eta ingurukoena zaintzea lortu nahi da.

1. **Kostuak murriztea:** Gure zerbitzua musukoen kostua jasan ezin duten biztanle guztiei zuzenduta dago. Ikerketa desberdinen arabera, COVID-19ko egoera honetan, lau kideko familia batek 120 euro ordaindu beharko lituzke hilabetero batez bestez musukoen erosketan.



Gure zerbitzuari esker, herritarren kostuak murriztu nahi ditugu, eta erraztasunak eskaini izurrite hau ahalik eta hoberen kudeatu dezaten.

2. **Kutsadura gutxitzea:** Musukoaren erabilerak iraungo duen epe honetan, kutsadurak okerrerezko bidea hartuko du, milioika musuko ingurumenera botako baitira. Gure zerbitzuari esker musuko erabiliak edukiontzi espezifiko batera



botatzeko aukera izango dute biztanleek. Modu honetan, edukiontziak finantzatzuz gero, bi arazo konponduko lirateke: alde batetik, Koronabirusak eragingo duen kutsadura murriztuko litzateke, erabiltzaileek musukoak gure ontzietan botako lituzketelako. Gainera, kutsatuta egongo balira ez lirateke lurrian botata egongo. Beste aldetik, biztanleek gure ontziak erabiliko balituzte, udalak diru gutxiago gastatuko luke kaleen garbiketan.

3. Osasuna bermatzea:

Edukiontziei esker, erabiltzaileen kostuak murrizteaz gain, beraien osasuna zaindu nahi dugu. Horregatik, musukorik ordaindu ezin duten pertsonak kutsatzeko arriskurik izan ez dezaten bermatu nahi dugu, inork ez lukeelako birus hau harrapatzeko mehatxurik izan behar, bai musukoak erosteko zailtasunak izateagatik, bai musukoa apurtzeagatik edo aldatzeko zailtasunengatik. Laburbilduz, bere osasuna eta ingurukoena zaintzea lortu nahi da. Edukiontziei esker, herritarrek musukoak maiztasunez aldatzeko aukera izango dute, modu honetan kutsadurak saihestea lortuko da. Bestalde, COVID19aren aurkako borrokan higiena hobetzea lortuko litzateke; kutsaduren transmisioa murriztuko litzateke, musukoa behar baino denbora gehiagoz erabiltzea ekidituz.